OSOGUNEKO ERAKASKERA
2000-2001. IKAS-URTEA.

ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA ELHEKETAN.

(I) 1. Zonbat atso badira? Zoin dira?
2. Nork bidatzen du itsua?
3. Zonbat jende lotuak dira sogari?

(II)

# 6 ERREGINA HIRRIZ

Bihurgune batean, xakur baten ondotik eta hari estekatua, bazoan itsu bat. Gure dantza-korda errabiatua aldean iragaitearekin, xakurra sainga eta sainga emaiten da, asikika atsoeri. Lotzen da berehala hura ere, eta itsua gero harekin.

Eta, firrindilaka, badoazi oro, Erregeren Jauregirat ari zirela hurbiltzen.

Lorik ezin-eginez jadanik jeikia, bethi bezen ilhun, Jauregiko leiho handi baten ondoan erdi etzana zagon Erregeren Alaba gaixoa...

Elgarri lothuak, eta soka-dantza lehergarri[1] batean heldu, ikusi zituelarik... muthil gaztea, bildotxa, apheza, gelaria, aza-hostoa, ahuntzak, okina, harotza, bi emaztekiak, xakurra, itsua, hirri eta hirri hazi zen Erregina gazte gaixoa. Eta hirri egitetik ez ziteken geldi gehiago, xoro bat bezala karkaraka ari bethi...

## 33. IZAN. Potentiel

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Ni izan naiteke = je peux être | N. izan ninteken = je pouvais être |
| Hi -"- haiteke = tu peux être | H. " hinteken = tu pouvais être |
| Zu -"- zaitezke = vs pouvez être | Z. " zintezken = vs pouviez être |
| Hura -"- daiteke = il peut être | H. " ziteken = il pouvait être |
| Gu -"- gaitezke = ns pouvons être | G. " gintezken = ns pouvions être |
| Zuek -"- zaitezkete = vs pouvez être | Z. " zintezketen = vs pouviez être |
| Heiek -"- daitezke = ils peuvent être | H. " zitezken = ils pouvaient être |

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Bazoan itsu bat. 32. Hura doakio
33. Ez ziteken geldi. 34. Hek doazkit
35. Erdi etzana zagon

## 31. JOAN. Indicatif.

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Ni noa = je vais | N. nindoan = j'allais |
| Hi hoa = tu vas | H. hindoan = tu allais |
| Zu zoatzi = vous allez | Z. zinoatzin = vous alliez |
| Hura doa = il va | H. zoan = il allait |
| Gu goatzi = nous allons | G. ginoatzin = nous allions |
| Zuek zoazte = vous allez | Z. zinoazten = vous alliez |
| Hek doatzi = ils vont | H. zoatzin = ils allaient |

## 32. JOAN R. SINGULIER REGIME INDIRECT. P. PLURIEL

| Hura doa = il va | 34 Hek doatzi = ils vont |
|---|---|
| Hura (lui) doakit = il me va | Hek (eux) doazkit = ils me vont |
| -"- doakizu = il vous va | -"- doazkizu = ils vous vont |
| -"- doakio = il lui va | -"- doazkio = ils lui vont |
| -"- doakigu = il nous va | -"- doazkigu = ils nous vont |
| -"- doakizue = il vous va | -"- doazkizue = ils vous vont |
| -"- doakie = il leur va | -"- doazkie = ils leur vont |

## 35. EGON → Indicatif. → 35b Conditionnel Présent ou Futur / Subjonctif Présent

| Présent | Imparfait | Conditionnel Présent ou Futur | Subjonctif Présent |
|---|---|---|---|
| Ni nago = je reste | N. nindagon = je restais | Ni nindagoke = je resterais | N. nagon = que je reste |
| Hi hago = tu restes | H. hindagon = tu restais | Hi hindagoke = tu resterais | H. hagon = que tu restes |
| Zu zaude = vous restez | Z. zinauden = vous restiez | Zu zinauzke = vous resteriez | Z. zauden = que vs restiez |
| Hura dago = il reste | H. zagon = il restait | Hura lagoke = il resterait | H. dagon = qu'il reste |
| Gu gaude = nous restons | G. ginauden = nous restions | Gu ginauzke = nous resterions | G. gauden = que ns restions |
| Zuek zaudezte = vous restez | Z. zinaudezten = vous restiez | Zuek zinauzkete = vous resteriez | Z. zaudezten = que vs restiez |
| Hek daude = ils restent | H. zauden = ils restaient | Hek lauzke = ils resteraient | H. dauden = qu'ils restent |

Subjonctif Imparfait = Idem que Imparfait de l'indicatif.